

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Atal honetan negozio eredu batek funtziona dezan beharrezkoak diren hornitzaile eta bazkide sarea deskribatzen dugu. Izan ere, enpresak arrazoi desberdinengatik elkartzen dira, eta elkarketa hauek geroz eta garrantzitsuagoak dira negozio eredu askorentzat.

Gure proiektuak ondo funtziona dezan, bi puntu oso garrantzitsu azertu behar ditugu. Alde batetik, bazkideak eta bestetik, gure proiektua aurrera eramateko beharrezko materialak, hornitzaile ezberdinetatik lortzen ditugu.

Adibidez, guk beharreko material nagusiak txip-ak eta urrezko eta zilarrezko lepokoak dira. Beraz, txip-ak AliBabari erosiko dizkiogu, eta lepokoak, berriz, Antonio Lopez Montero bitxi-dendari. Enpresa honek mota askotako lepokoak eskeintzen dizkigu, forma eta estanpatu esberdinekoak. Gainera, bera izango da txip-ak lepokoetan txertatuko dituen.



Hortaz gain, Alibaba enpresak duen abantaila, kantitate askotariko produktuak saltzen dituela da. Hau da, gure kasuan txip bakarria erosi beharrean, paketeak 3.000 txipekoak dira. Hori oso baliagarria eta praktikoa da enpresa askorentzat, ekomikoki ere askoz hobeto ateratzen baita. Modu honetan, ekintzaileek askoz ere etekin handiagoa atera dezakete.

Erosketa burutu ostean, FedEx Express izeneko enpresak izango du ardura txipak Antonioren lantegira eramateaz, eta gero, gure lokalera GLS garraio enpresak eramango lituzkete. Ondoren, guk paketea prestatuko genuke, eta enpresa berarekin gure bezeroei etxera iritsiko litzaiekete.



Aipatutako guztia alde batean utzita, badaude beste haineste gauza gure kargu utziko ditugunak, publizitatea esaterako. Taldeko kideak oso trebeak ikusten gara sare sozialekin, eta beraz, ez litzaiguke batere zaila irudituko hauek aurrera eramatea. Beraz, ez genuke inolako eragozpenik izango.

